



**AGINDUA, 2018KO URTARRILAREN 31KOA,
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO
SAILBURUARENA, SAILAREN 2018-2020
EPEALDIKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN
ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA**

Diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan honako hau jasotzen da:

"Herri Administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiak, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, Plana burutzeko ezinbestekoa izango da aurrekontuen egonkortasuneko helburuak betetzea."

Lege-xedapen hori betetzeko Sailaren 2018-2020 epealdiko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egin da (PES 2018-2020 Plana). Horretarako kontuan hartu dira; batetik, 01/15 zenbakidun ZIRKULARRA, 2015eko irailaren 18koa, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandakoa (Diru-laguntzen Plan Estrategikoak egiteari buruzkoa); bestetik, 24/2016 DEKRETUA, azaroaren 26koa, Lehendakariarena (EAERen Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardunarloak finkatzen dituena); eta, azkenik, 82/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena).

Plan Estrategiko hau Sailaren politika antolatzeko tresna da, diru-laguntzen bidez, gizartearren interesarako edo gizarteak erabiltzeko den jarduera bat sustatzea edo helburu publikoren bat lortzea jomuga duten jardun-arloetan.

Halaber, Plan orokorra eta osoa da, Sailaren Administrazio Publiko guztia hartzen baitu, hots, Administrazio Orokorra (Saileko Zuzendaritzak), Administrazio instituzionala (HABE erakunde autonomiaduna eta ETXEPARE zuzenbide pribatuko erakunde publikoa) eta BASQUE TEAM Fundazioa.

Horiek horrela, indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartea Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2018-2020 epealdiko Diru-Laguntzen Plan Estrategikoa, eranskin gisa gehitzen dena.

Bigarrena.- Agintza Sailaren euskadi.eus webgunean argitaratzeko.

ORDEN DE 31 DE ENERO DE 2018, DEL CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE APRUEBA EL PLAN ESTRÁTÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO PARA EL PERÍODO 2018-2020

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, establece lo siguiente:

"Los órganos de las Administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria."

En cumplimiento de dicha disposición legal se ha elaborado el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento para el período 2018-2020 (PES 2018-2020). Para ello, se han tenido en cuenta; por un lado, la CIRCULAR Nº 01/15, de 18 de septiembre de 2015, de la Oficina de Control Económico (relativa a la elaboración de los Planes Estratégicos de Subvenciones); por otra, el DECRETO 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari (de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración CAE y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos); y, finalmente, el DECRETO 82/2017, de 11 de abril (por la que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística).

La elaboración de este Plan Estratégico se configura como un instrumento de planificación de la política del departamento en aquellas áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de utilidad o interés social o la promoción de un fin público, mediante la concesión de subvenciones.

Es, además, un Plan general y completo, ya que, comprende el conjunto de la Administración Pública del Departamento, esto es, la Administración General (Direcciones del Departamento), la Administración Institucional (el organismo autónomo HABE y el ente público de derecho privado ETXEPARE) y la Fundación BASQUE TEAM.

Así, en virtud de las competencias que me atribuye la normativa vigente,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Cultura y Política Lingüística para el período 2018-2020, que se incorpora como anexo.

Segundo.- Ordenar que se dé publicidad mediante su inserción en la web euskadi.eus del Departamento.



Nahi izanez gero, JOD02-T13HF-ZBNA bilakaera erabilita, dokumentu hau egiazkoan
lau ez jakin fitxek egutegi elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/localizatzalea>
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA
CONSEJERO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
JOD02-T13HF-ZBNA en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>